

Gizarte Berrikuntzari buruzko **3.** Jardunaldia

Aurkezpena

Bizkaiko Foru Aldundiak gizarte-berrikuntzaren arloko erreferente izateko apustu argia egiten du, gure lurraldearen erronka sozialei aurre egiteko.

Apustu horretan, gainera, hainbat ikuspuntu integratu ditu: ikuspegi soziala, Gizarte Ekintza Sailaren bitartez; eta jarduera ekonomikoa sortzearena, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bitartez. Beaz eta Seed Capital bere enpresa publikoak ere sartu ditu.

Gure lurraldea gizarte berrikuntzaren arloan erreferente legez kokatu nahian, Bizkaiko Foru Aldundiak «Bizkaia erreferentzia-nodoa gizarte-berrikuntzan» urteko jardunaldiaren hirugarren edizioa antolatu du. Gizarte-arloan berritzaile diren pertsonak eta erakundeak bilduko ditu jardunaldian, zeinak gure lurraldean gizarte-berrikuntzaren arloko proiektu-esperientziak izan dituzten.

Jardunaldia honako hauentzat da, batez ere:

- Proiektu sozial berritzaileak garatzeko eta/edo enpresa edo erakunde sozial berritzaile berriak sortzeko interesa duten erakundeak edo enpresentzat.
- Arlo sozial guztietako eta hirugarren sektoreko enpresa zein elkarteetako arduradun eta profesionalentzat.
- Enpresak sustatzeko erakundeentzat, baldin eta gizarte arloan berritzaileak diren enpresa berriak sustatzeko lanean ari diren edo lan egin nahi duten.
- Gizarte-arloan berritzaile den ideia propioa garatu nahi duten pertsona berritzaileentzat.

IZEN EMATEA DOAN DA; plaza erreserbatu behar da, eta horretarako ondoko bitartekoak erabil daitezke:

- www.bizkaia.eus web-aren bitartez
- Posta elektronikoa: topaketak@bizkaia.eus
- Telefonoa: 900 220 002

Bizkaia, Gizarte Berrikuntzaren nodoa

Egitaraua

8:30: Akreditazioak.

9:00: Bizkaiko Foru Aldundiak gizarte-berrikuntzaren alde egiten duen apustuaren **aurkezpena**.

9:15: Gaiaren aurkezpen-hitzaldia: Zergatik bultzatu genuen La Fageda?

Cristóbal Colón, La Fageda erakundeko presidente eta sortzailea.

10:15: Mahai-ingurua: zergatik gizarte-berrikuntza?

Moderatzailea: Sergio Murillo. Autonomia pertsonala sustatzeko zuzendaria. Bizkaiko Foru Aldundia.

Parte-hartzaileak: Constan Dacosta, Bizkaiko *social angela*; Cristóbal Colón, La Fageda erakundeko presidente eta sortzailea; Txema Franco, Lantegi Batuakeko zuzendari eta EHLABEko presidentea eta Itziar Ceballos, Avifeseko kudeatzailea.

11:00: Atsedena / Kafea.

11:30: Esperientzien mahai.

Aurkezlea eta dinamizatzailea: Ainara Basurko, BEAZ Bizkaia erakundeko zuzendaria.

Parte-hartzaileak: Jordi Albareda, SOLIDARTERSeke sortzaile eta presidentea; Ana Urrutia, TorreZuri taldeko zuzendari-kudeatzailea eta Santi Pisonero, 3DLANeko koordinatzailea.

12:30: Gaiaren aurkezpen-hitzaldia eta Mahai-ingurua: Gizarte-finantzaketa.

Gaiaren aurkezpen-hitzaldia: Emakumeen ekintzailletza finantzaketa.

Aurkezlea: Jon Mancisidor, Bizkaiko *social Angela* eta EDE Fundazioako presidentea.

Fiza Farhan, Garapen Estrategiko Globaleko aholkulari eta emakumeen ahalduntze ekonomikoari buruzko NBERen Goi Mailako Paneleko kidea.

Mahai-ingurua: Gizarte-finantzaketa.

Aurkezle eta moderatzailea: Oscar Ugarte, Seed Capital Bizkaia sozietateko zuzendari-kudeatzailea.

Parte-hartzaileak: Fiza Farhan, Garapen Estrategiko Globaleko aholkularia; Aitor Ojanguren, KOIKI zerbitzuaren sortzailea; Jon Mancisidor, Bizkaiko *social angela* eta EDE Fundazioako presidentea; Manuel Uriarte, CREASeko kontseilaria eta Peru Sasia, Banca Popolare Etica kontseilaria eta Banku Etikoaren Europako Federazioko presidentea.

14:00: Jardunaldiaren amaiera-ekitaldia.

Gizarte Berrikuntzari buruzko **3.** Jardunaldia



Bizkaia, Gizarte Berrikuntzaren nodoa

Euskalduna Jauregia
A3 aretoa
Abandoibarra etorb. 4, Bilbo

8:30ean
2017ko urriaren 11n
www.bizkaia.eus



Europar Batasuna
Europako Gizarte Funtza
EGFR zure etorkizunean inbertitzen du
Unión Europea
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral